



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko ekainaren 20an

68 ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egina, egitekoa den espetxearen kokalekuari buruzkoa (3. or.).
- Jabeldura, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egina, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartu eta bertako lanpostuak betetzeko lehendik zegoen araubideko zenbait alderdi aldatzen dituen Foru Dekretuari buruzkoa (4. or.).
- Jabeldura, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Nafarroako Gobernuak hurrengo lau urteetan etxebizitzaren arloan izanen duen politikari buruzkoa (5. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroa Gobernua premiatzen da irakurketa bultzatzeko plan bat egin dezan (8. or.).
- Mozioa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro hel diezaion Udako Euskal Unibertsitatearekin zuen lankidetzaren hitzarmenari (10. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behi-aziendaren entzefalopatia espongiformeak eragindako arazoak konpontzea helburu duten eskaera ekonomikoei aurre egin diezaion (11. or.).
- Mozioa, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ordenagailuak erosteko laguntzak mailakatze-irizpideen arabera egin daitezen (12. or.).
- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nazioko Gobernua premiatzen da ez dadin hasi tramitatzen 2002ko otsailaren 1a baino lehen Unibertsitateari buruzko Lege Organikoaren proiektua (12. or.).
- Adierazpen politiko, Konstituzioko Lehen Xedapen Gehigarria, zeina foru lurraldeen eskubide historikoak babestu eta errespetatzeari buruzkoa baita, indarrean dagoela berrestekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).
- Adierazpen politiko, El Salvadorko Santa Tecla udalerriko San Jacinto muinoa babesgunez har dadila eskatzekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).

—Adierazpen politikoa, Palestina eta Israelen arteko bake-akordio baten aldekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, Nafarroako Foru Komunitateko ikasleen gaineko datuei buruzkoa (16. or.).
- Galdera, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina, adimen gaixoentzako programek izan duten aurrekontu-betetzeari buruzkoa (16. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, herrilanetan jartzen diren eskulturek izaten duten adjudikazio-sistemari buruzkoa (18. or.).
- Galdera, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak egina, zaharretxeen proiektuen finantziarioari buruzkoa (18. or.).
- Galdera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egina, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak produktibitate-osagarria dela-eta ordaindutakoei buruzkoa (19. or.).
- Galdera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egina, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak aparteko orduak direla-eta ordaindutakoei buruzkoa (19. or.).
- Galdera, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, Lizarrako alkohol-fabrikari ibilgailuak sartzeari buruzkoa (20. or.).
- Galdera, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, irrati emisoren emakiden adjudikazio-hartzaile izan ziren enpresei buruzkoa (21. or.).
- Galdera, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina, suhiltzaile eta bidezainen etxebizitza hutsei buruzkoa (22. or.).
- Galdera, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina, suhiltzaile eta bidezainen etxebizitza hutsak etorkinek erabiltzeko aukerari buruzkoa (22. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, Europar Batasunean gehien erabiltzen diren hizkuntzak ikergai hartuta, Nafarroako Foru Komunitatean egitekoa den inkesta soziolinguistikoiari buruzkoa (23. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko kontusailen betetzeari buruzkoa (23. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Foru Komunitateko errepede handien etorkizuna –bereziki A-15arena– aztertzeko Batzorde Bereziak emandako txostena (25. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, egitekoa den espetxearen kokalekuari buruzkoa

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n egindako bilkuran, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egitekoa den espetxearen kokalekuari buruzko jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

JABELDURAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari:

Aurrekariak

Iaz, Estatuko Administrazio Orokorrek eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak hitzarmena sinatu zuten Nafarroan espetxe berria eraiki eta finantzatzeko.

Hitzarmen horren arabera -bigarren klausulak espetxearen kokapena aipatzen du-, bi administrazioen artean erabakiko dute espetxea non jarri, baina Foru Komunitateak jarriko ditu lurrak.

Bai Gobernuko Lehendakari Sanz jaunak bai lehendakariorde Gurrea jaunak adierazpen publikoak egin dituzte espetxea kokatuko den tokiari

buruz, eta ia segurutzat jo dute Izarbeibarko Auritz alderdian jarriko dela. Ondoren, ibarreko udalak aho batez azaldu dira proiektu horren aurka, eta mobilizazioak eta bestelako ekimenak abiarazi dituzte espetxearen aurka egitearren.

Gobernuko Lehendakariak uko egin dio ukitutako herrietako alkateak hartzeari harik eta espedientearen tramitazioa bukatu arte; hartara, bueltarik ez duten erabakiak onartzera behartu nahi ditu, eta hori ez da bidezkoa toki entitateen eta foru gobernuaren arteko errespetuan oinarritutako harreman onaren ikuspegitik begiratuta.

Gure talde parlamentarioak horri buruzko galdera mordoa egin zion Gobernuari, eta hark bi hitzetan erantzun zituen, bertako prentsaren bidez geneukan informazioa baino gutxiago emanez.

Hori dela-eta, eta auzi hau argitzeko asmoz, gure talde parlamentarioaren iritziz beharrezkoa da Gobernuak Osoko Bilkuran agerraldia egin eta ondokoak argitzea:

- Herritarrek espetxea Izarbeibarren jartzearen aurka daudela jakinik, prest al dago Nafarroako Gobernua kokapenari eusteko ukitutako herrietako biztanleen borondatearen aurka?

- Zergatik baztertu dira beste aukera batzuk, esaterako egungo espetxea zaharberitzea?

Iruñean, 2001eko ekainaren 5ean

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Jabeldura, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartu eta bertako lanpostuak betetzeko lehendik zegoen araubideko zenbait alderdi aldatzen dituen Foru Dekretuari buruzkoa

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n egindako bilkuran, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartu eta bertako lanpostuak betetzeko lehendik zegoen araubideko zenbait alderdi aldatzen dituen Foru Dekretuari buruzko jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

JABELDURAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari:

Aurrekariak

Iragan ekainaren 4an, Nafarroako Gobernuak foru dekretu bat onetsi zuen, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartu eta bertako lanpostuak betetzeko lehendik zegoen araubideko zenbait alderdi aldatzen zuena. Foru dekretu hori bereziki nabarmentzen da lanpostu horietarako deialdietan euskararen presentzia mugatzen delako.

Horren bitartez, aldaketa handiak gertatuko dira, baina ez Nafarroan euskararen garapen normalizatua bultzatzeko -ezta hurrik eman ere-, baizik eta nafar guztion ondare kultural eta historikoa den aldetik euskarak hain beharrezkoa duen normalizazioari are eta oztopo gehiago jartzeko, oraingoan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan.

Aurreko beste dekretu batzuetan egin diren aldaketen bidetik, honetan ere kendu egiten da merezimenduetatik euskararen berariazko balioespena eremu euskaldunean, eta batasuneko beste hizkuntza batzuekin batera, besterik gabeko merezimendu gisa azaltzen da, administrazioan euskararen erabilera arautzen duen foru dekretuak ezarritako kasuetan eta proportzioan.

Alegia, hemendik aurrera ez da bermatuko Osasunbidean sartzten diren osasun arloko langileek euskara jakin dezaten, eta horrek diskrimina-

tu egiten ditu nafar euskaldunak argi eta garbi. Egoera are eta larriagoa izanen da eremu euskaldunean; izan ere, osasun arloko langileek hizkuntza ez jakitean ezin izanen dutenez euren lana normaltasunez egin, urratu eginen da nafar euskaldunek Osasunari buruzko 10/1990 Foru Legeko 1. artikuluari jarraikiz duten eskubidea osasun zerbitzuak jasotzeko. Konparaziorako, Ingalaterrako administrazio publikoak bertako osasun zerbitzuan lan egiteko euskarari eta ingelesari balio berbera emanen balie bezala da.

UPNko Gobernuak euskarari eta euskaldunei etengabe erasotzeko duen intentzio politiko nabaria alde batera utzita, esan beharra dago bidegabekeria ikaragarria dela herritarren osasuna bermatzeari dagokionez. Zer ulertuko dio gaztelaniarik ia ez dakien gaixo batek fakultatibo bati eta nola ulertuko du medikuak patologia baldin eta ulertzen ez duen hizkuntza batean hitz egiten badio gaixo batek? Bidegabekeria eta arduragabekeria galantak gero, zeren arriskuan jartzen da pertsonen osasuna euskara desagertarazteko interes eta estrategia politikoaren mesedetan.

Horri guztiari gehitu egin behar zaio dekretu horrek ez duela betetzen Osasunbidean indarrean dagoen hitzarmen kolektiboa, hartan mantendu egiten baitira osasun zerbitzuetako lerro elebidunak, eta horrek esan nahi zuen etorkizunean lanpostuak betetzean ez zela aldatuko euskara jakin beharra. Gainera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko negoziazio mahaiko sindikatuek ezetza eman zioten orduan ere halako neurriak ezartzeari.

Azkenik, dekretu hori legea eta nafarren hizkuntza eskubideak nabarmen urratuz egin da berriro ere, eta hori benetan larria da; izan ere, urratu egiten ditu Nafarroan euskarari buruz indarrean dagoen legediko hainbat atal. Dekretu horrek ez ditu betetzen Euskarari buruzko Legeko ondoko artikulua:

Xedapen orokorrak

1.2.a. artikulua: Hiritarrek euskara ezagutu eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea.

2.1. artikulua: Gaztelera eta euskara Nafarroako hizkuntza berekiak dira eta, horren ondorioz,

hiritar guztiek dute ezagutu eta erabiltzeko eskubidea.

2.2. artikulua: Gaztelera da Nafarroako hizkuntza ofiziala. Baita euskara ere Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. artikuluan eta Foru Lege honetan aurreikusitako eran.

3.1. artikulua: Botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte hizkuntzagatik hiritarrek gutxietsiak izan ez daitezen.

6. artikulua. Aitortu egiten da hiritar guztiek Administrazio Publikoekiko harremanetan gaztelera nahiz euskara erabiltzeko eskubidea dutela.

Erabilpen ofiziala eremu euskaldunean

10. artikulua: Hiritar guztiek, Administrazio Publikoekiko harremanetan euskara nahiz gaztelera erabiltzeko eta hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute.

Horretarako eta eskubide honen mailaz mailako erabilpena bermatzeko, neurri egokiak hartuko ditu eta beharrezko gerta daitezkeen bitartekoak erabakiko.

Erabilpena eremu mistoan

17. artikulua: Hiritar guztiek euskara nahiz gaztelera erabiltzeko eskubidea dut Administrazio Publikoekiko zuzentzeko.

Eskubide honen erabilera bermatzeko, aipatu Administrazioek honako hau egin dezakete:

a) Urteroko lanpostuen eskaintza publikoan zein lanpostutarako izanen den nahitaezko euskaraz jakitea zehaztu.

b) Gainerako lanpostuetara iristeko deialdietan euskararen ezagupena merezimenduztat baloratu.

Erabilpena eremu ez euskaldunean

18. artikulua: Aitortu egiten da hiritarrek Nafarroako Administrazio Publikoetara euskaraz zuzentzeko eskubidea dutela...

Proposamena

Hori dela-eta, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuak lehendakariari, Biltzarreko Osoko Bilkuran ondokoak jakiteko:

- Nola egokitzen zaien arestian aipatutakoei Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartu eta bertako lanpostuak betetzea arautzen duen dekretu berria.

- Nola bermatuko den dekretu berri honen ondotik nafar guztiek bermaturik izatea osasun zerbitzuak jasotzeko duten eskubidea, osasunari buruzko foru legean ezarri bezala.

- Nola egokitzen zaien dekretu hori O-NOZeko hitzarmen kolektibo indarduneko edukiei.

Iruñean, 2001eko ekainaren 6an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Jabeldura, Nafarroako Gobernuak hurrengo lau urteetan etxebizitzaren arloan izanen duen politikari buruzkoa

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuak hurrengo lau urteetan etxebizitzaren arloan izanen duen politikari buruzko jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

JABELDURAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko electedun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, 179. artikulua eta hurrengoak aplikatuz, zeinek Nafarroako Gobernuari jabeldurak egitea arautzen baitute, jabeldura bat aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran izapida dadin, datozen lau urteetan praktikan jarriko duen etxebizitzaren politikari buruz. Hain zuzen ere, gizartean eta Parlamentuan eztabaida bat pizteko lehen urratsa eman nahi da horrela; eztabaida horren emaitza izan daiteke oposizioak datozen urteetarako egiazko

Etxebizitza Plan bat egitea, Gobernuak arazo horri irtenbideak emateko agertu duen ezintasuna ikusirik.

Aurrekariak

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak sakonki aztertu du Nafarroako Gobernuak 2001-2004 urteetarako onetsitako Etxebizitza Plana, eta hauxe ondorioztatu du: Plan horrek ez diela irtenbiderik ematen etxebizitza-gabezia dela-eta Nafarroako gizarteak dauzkan arazoei, eta, aldatzen ez bada, aztertzen ari garen gai hain garrantzitsu honetan lau urte alferrik galtzera eraman gaitzakeela.

Nafarroako gizarteak etxebizitza jotzen du, terrorismoaren iraupena kontuan hartzen ez bada, konpondu gabeko arazo nagusizat.

Urrun daude botere publikoek lehen, laurogeiko hamarkada inguruan, irmotasunez eginiko ekintzak. Gaur egun, nor bereztat edo bere seme-alabentzat etxebizitza bat bilatzen duenean, etxebizitzek duten prezio gero eta handiagoaren oztupoarekin egiten du topo, eta, horren aurrean, Gobernuak jarrera pasiboa eta utzikeriakoa agertzen du. Gero eta jende gehiago pentsatzen ari da botere publikoen pasibitatearen atzean zerbait egon dela. Gero eta jende gehiagok pentsatzen du, eta ez zaio arrazoirik falta, etxebizitza-urritasuna eta haien prezio altua ulertezinak direla, kontuan izanik Nafarroan lurzorua soberan dagoela. Gero eta jende gehiagok jotzen du ezen, zenbat eta etxebizitza gutxiago egon merkatuan, etekin gehiago lortzen dutela gutxi batzuek, hainbat eta hainbat jenderen bizkar. Eta gero eta jende gehiagok pentsatzen du ezen, hainbeste pertsona elkarrekin ados bagaude, gutxiago hitz egin eta gauza gehiago egin behar dela.

Espainiako Konstituzioko 47. artikulua xedatzen du espainiar guztiek eskubidea daukatela etxebizitza duin eta egoki bat izateko, eta botere publikoek eskubide hori eraginkor izan dadin beharrezkoak diren baldintzak sustatu eta egoki diren arauak ezarriko dituztela, eta, espekulazioari aurre egiteko, lurzorua erabilera interes orokorraren arabera arautuko dutela.

Gaur egun, Konstituzioa onetsi zenetik ia hogeita bost urte igaro direnean, espekulazioa borroka irabazten ari zaie botere publikoei, Konstituzioaren manuari eta baita herritarrei beraiei ere.

Egoera deitoragarri honetan, Gobernuak gauzatzen ari den politika, eraginkorra ez den aldetik, kritikagarria da, Gobernuak eginiko iradokizun onartezinetatik hasita: haien arabera, azkenean, arazo honen guztiaren errua dutenak herritarrak

bide dira; izan ere, ekonomiak goraldia bizi duen garai batean, euren aurrezki pribatua etxebizitzan inbertitzeko erabiltzen dute, eta, horrela, prezioak igotzen dituzte. Paradoxa bitxia, inondik ere: egoeraren errua irtenbideak eskatzen dituzten pertsona berei, alegia, herritarrei, egozte.

Sozialiston iritziz, etxebizitza, oinarrizko konstituzio-eskubidea ez ezik, pertsonen ongizatea berdintasun-baldintzetan lor dezaten bermatu ahal izateko behar den ondasun bat ere bada. Administrazio publikoek lurzorua eta etxebizitzaren merkatuan esku hartzea funtsezkoa da; izan ere, gizarte-ekimenik gabe ezin da populazioko sektorerik txiroenek eta, bereziki, gazteek etxebizitza eskuratu ahal izateko eta lurzoru-jabeen espekulazioa eragozteko etxebizitza-politika eraginkorrik egin.

Gauza nabaria da gaur egun etxebizitza bat eskuratzeak ahalegin ekonomiko oso zaila eskatzen diela erosi nahi dutenei. Egoera hori, Iruñerrian, jasanezintzat baizik ezin da jo, eta etxebizitza lortzea ezinezkoa dela esan behar da eskuratu nahi dutenak prekaritate-egoeran daudenean eta gaizki ordainduriko lanpostu bat daukatenean, edo egoera okerragoan dauden taldeak direnean. Baina, gehiago sakonduz, aipatu beharrezkoak dira, halaber, kontrataturiko hipoteken zenbateko handiak, kasu askotan, eta hitzarturiko amortizazio-epe luzeak, zeinek ziurgabetasun handia sortarazten baitute norberaren bizitzan. Gurasoek erositako etxebizitzak etorkizuneko seme-alabek ordaintzen bukatu beharko dituztela esatea ez da, kasu askotan, gehiegikeria bat.

Beraz, bada garaia tinko eta ziurtasunez jarduteko.

Jadanik foru araubide demokratikoaren une honetan gaudelarik, ez da politikoki onargarria ehundaka herritarrentzat etxebizitzaren arazoa ezin konponduzkoa izatea.

Eskaeraren zioak

Botere publikoek Nafarroako herritarrengan eta, bereziki, etxebizitza bat eskatzen dutenengan konstituzio-eskubide hori betetzeari dagokionez orokortu arte hedatu den mesfidantzak sorturiko kezka izan da, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearentzat, jabeldura honen abiapuntua.

UPNren Gobernuak eginiko eta Yolanda Barcina eta Javier Marcotegui kudeaturiko aurreko Etxebizitza Planak izandako porrotarekin batera, Nafarroako Gobernuaren 2001-2004 Etxebizitza Plan berriko helburuen eskastasuna kontuan hartu behar da. Gauzak gaizki badabiltza, ez dira

Plan berriarekin hobetuko. Gaur egungo Planak, aztergai dugun gaiari behar bezala aurre egiteko baino, argazkian ateratzeko pentsatua dagoela dirudi. Horrekin batera gogoan hartzen badugu Parlamentuan eztabaidatzera ez eramateko Gobernuak agertu duen jarrera tematia, ondorioa bakarra izan daiteke: funtsari eta formari dagozkien arazoengatik hura ontzat ez hartzea.

Nafarroan, etxebizitzaren prezioak %10eko igoera izan du urtarriletik maiatzera bitartean. Harrigarria baino, logikoa dela esan behar da: ondasun bat urri denean, eta esku-hartze publiko eta sozialik ez egoteagatik merkatua deslaxatzen denean, prezio-igoera da gertatzen dena. Merkaturatu produktu gehiago jarriz edo merkaturatu jardunez soilik lor daiteke igoera xamurtzea edo prezioei eustea. Orain arte bezala segitzen badugu, prezioek igotzen segituko dute.

Itxuraz arraroa izan daiteke, baina errealitatea hau da: gure Erkidegoan ez da merkaturatu etxebizitza gehiago sartuz haren prezioei eusteko ekintza sendorik egin. Ez da horrelakorik egin gure Erkidegoko gobernu sozialistek Mendillorri sustatu eta Sarrigurengo lur-erreserba egin zutenetik. Bitxia da: garai hartako eskuina neurri horien aurka egon zen, eta Nafarroako Jauregira iritsi zirenetik ez dute halako izenik merezi duen ekintzarik egin, alde batera utzirik exekutaturikoa eta aurreikusitako gabekoa erabat eskasa izan dela.

Egoeraren diagnostikoa egiteko, beharrezkoa da osotasuna aztertzeke jarrera izatea. Lege-izateko bitartekoak eta araudi sektorialak zaharkituta daudela eta horiek sozioekonomia berriaren errealitateari egokitu beharrezkoak direla onartu behar da, hasteko. Afera motel doa, lurralde-antolamenduen kudeaketa publikoari dagokionez; ez dago zuzendaritza politikorik, eta interes pribatuak taxutzen dute hirigintza.

Lurzoruaren balioa neurrigabea da, eta etenik gabe ari da igotzen, lurzoruari dagokionez ez dagoelako esku-hartze publiko egokirik, merkatua ekimen pribatuan oinarrituriko monopolio-araubidekoa izatearen ondorioz.

Horrekin guztiarekin batera, eta babes ofizialeko etxebizitza-kopuruari buruzko aurreikuspenak apalegiak izateaz gain, hiriak olio-tanta modura hazteko eta "donuts" tankerako hiri bilakatzeko arriskua dago, okupazioak biztanle-hazkuntzarekin proportziorik ez izatekoa; ibilgailu pribatuan oinarrituriko garraio-eredua sustatzearen arriskua ere badago.

Bestalde, egoera aztertzean aintzat hartu behar dira PPren gobernuak Espainian eta UPN-

renak Nafarroan eginiko hutsak. Gure kasuan, hauexek dira egoeraren ezaugarriak:

1.- Talde ekonomikoen interesaren arabera eginiko lurralde-antolamendua: lurzoru publikoa %15etik %10era izatera pasatu da; beraz, heren bateko murrizketa izan du.

2.- Hirigintza hitzartuko egoerak, espekulazio-interesaren mesedetan.

3.- Familiek euren etxebizitza erosi edo alokatze erabili beharrezko baliabideek izan duten nahitazeko igoera, prezioen gorakada eroren ondoriozkoa: hain zuzen ere, prezioek %70eko gorakada izan dute, eta egin beharrezko ordainketa-ahalegina oso maila altura eramanez dute. Horrek ongizatearen eta kontsumoaren maila bera baldintzatu du, eta, ondorioz, kasu askotan beste behar batzuk asetu gabe geratzen dira, hala nola goimailako hezkuntza, kultura norbereganatzea, bidaiak eta abar.

1997tik 2000rako Barcina Plana itxurakeria izugarria izan zen; oraindik datorkigu gogora zer nolako oihartzuna eragin nahirik aurkeztu zen Zolinako aintzirako urbanizazio edo hiri bioklimatikoa, zeina bluff bat zela esan baitzuen PSNk jadanik bere garaian. Horrez gain, lurzoru- eta etxebizitza-politikaren huts egitea ere gogoratu behar da: horren agerkari nagusia apirilaren 13ko 6/1998 Legea izan zen, zeina, bi urtez indarra izan ondoren, eta lurzoruaren prezioan izugarritzko gorakada eragin zuenez gero, Nazioko Gobernuak berak aldatu egin behar izan baitzuen, ekainaren 13ko 4/2000 Errege Lege Dekretuaren bitartez, nahiz eta horrela ere egoera ez zen onbidatu.

Aurrean azalduriko gogoetetan oinarrituz, irmotasun, eraginkortasun, tinkotasun eta azkartasunez jardun behar dute botere publikoek. "Adreiluaren etengabeko konspirazioaren" aurka neurriak hartu behar dira, "Iruñeko harresi berriei" aurre eginez, XXI. mendean bertan berriro agertu baitzaizkigu, eta Nafarroako herritarrei etxebizitza duin bat eskuratzea eragozten diete, garapena eta bizi-kalitatea hertsatzen zituzten harresiak eraitsi aurretik gertatzen zen bezalaxe. UPNko Gobernuak eginiko 2000-2004 Etxebizitza Plana ordeztzeko behar diren asmo eta ekintza politikoko guztiak koordinatu beharra dago; izan ere, plan horrek, zehaztugabea eta eskasa denez gero, kale egin du.

Arrazoi horiek direla-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuari zuzenduriko jabeldura hau aurkeztu du, datozen lau urteetan hark gauzatuko duen etxebizitza-politikari buruzkoa. Jabeldura

horren bitartez, gizartean eta Parlamentuan eztabaida pizteko lehen urratsa eman nahi du, eta horren emaitza izan daiteke oposiziotik egiazko Etxebizitza Plan bat egitea datozen urteetarako, Gobernuak arazo honi irtenbideak aurkitzeko agertu duen ezgaitasuna ikusita.

Proposatzen den jabeldura

Aurreko guztiak, gure iritziz, justifikatu egiten du datozen lau urteetan gauzatuko duen etxebizitza-politikari buruzko jabeldura hau Nafarroako Gobernuari aurkeztea. Horregatik, jabeldura honen helburua, gutxienez ere, Gobernuaren etxebizitza-politikari dagozkion honako puntu hauek ezagutzea da:

- Ea 2001-2004 Etxebizitza Planaren bitartez Foru Komunitatean etxebizitzarik ezak ekartzen dituen benetako arazoak konponduko dituela uste duen, eta nola izanen den hori;

- Zergatik ez duen Plan hori Parlamentuak eztabaida dezan hari igortzerik nahi eta, horrela, Parlamentuak Plan horri bere ekarpenak egiterik;

- Nola konponduko dituen lurzoru publikorik ez egotearen arazoak, bai Iruñean eta Iruñerrian, bai Nafarroako hiri handietan;

- Ea desjabetzeak egiteko asmorik ote duen lurzoru publikoari dagozkion aurreikuspenak egiteko etorkizunari begira;

- Zer arau-aldaketa proposatuko duen lurzoruari eta babes ofizialeko etxebizitzetara dagokienez gaur egungo egoera aldatzeko;

- Zein arrazoi dela-eta gerta daitekeen babes ofizialeko etxebizitzak egiteko prest dauden sustatzaileek beraiek ahal izanen eta nahi izanen luke ten etxebizitza-kopurua egin ahal ez izatea.

Iruñean, 2001eko ekainaren 8an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroa Gobernua premiatzen da irakurketa bultzatzeko plan bat egin dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroa Gobernua premiatzen da irakurketa bultzatzeko plan bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarietara zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 192. artikulua eta hurrengoak

xedatuari jarraikiz, honako mozio hau aurkeztu dio Parlamentuko Mahaiari, Hezkuntza Batzordean eztabaida dadin:

Biztanleen %51,8k onartzen du ez duela inoiz edo ia inoiz irakurtzen; eta, kolektibo horretatik, %15,5ek esaten eta aitortzen du unibertsitate-titulazioa daukala. Gabezia historiko hori indartu egiten du familia guztiek euren seme-alabengan irakurketa sustatzen ez dutela frogatzeak.

Datu horiek argiak eta zorrotzak dira eskola-adineko ikasleei ere dagokienez. Espainia osoko 12 urteko 11.000 ikasleri eginiko inkesta batek agertzen zuenez, ikasleen %76k gogoko edo oso gogoko du irakurtzea, eta %3k ez du irakurketa atsegin. Bestalde, beste azterketa batek erakusten du nerabezaroan irakurtzeko zaletasuna ahuldu daitekeela. Horrela, 6tik 12 urtera bitarteko ikasleetatik, %55ek oso gogoko du irakurtzea, baina, 13tik 16 urtera bitarteko adinean, kopuru hori %8ra jaisten da.

Inkestek azpimarratzen dute irakurketa sustatzeko hartzen diren neurri politiko urriek lagundu egiten dutela, nahiz eta indar gutxiz, egoerak hobera egin dezan. Inkestek errealitate hori ager-

tzen dute, eta hori azaltzeko zenbait arrazoi zehazten dituzte. Gazteek ez dute irakurtzen euren gurasoek ere irakurtzen ez dutelako, eta, bigarrenik, hezkuntza-sistema bideratuagoa dago haiei ezagutzak eskuraztera ezagutza horiek nola eskuratu erakustera baino; gorpil zoro hori apurtzeko ahalmenik ez du agertzen. Baina, hala eta guztiz ere, egoera ez da konponezina, eta gure esku-hartze zibiko eta politikoa beharrezkoa da Espainiako irakurketa-datu apalak aldarazten laguntzeko.

Botere publikoen ekintzak bideratu behar dira irakurtzeko nahia piztu, liburuaren fiskalitatea hobetu, irakurketa eta ikastetxeetako nahiz auzo-etako liburutegietan irakurtzearen gozamina sustatu eta abarren ildotik. Humanitateen Batzordeko irizpenaren zuzendariak, Juan Antonio Ortega y Díaz Ambrona irakasleak, ziurtatzen duenez, Humanitateei buruzko Plan guztia hiru hitzetan laburtzen da: irakurri, irakurri eta irakurri.

Funtsezkoa da gurasoek irakur dezatela, euren seme-alabei istorioak konta diezazkietela eta, haiek bakarrik irakurtzen dakitenean, haiekin irakurgaiei buruzko iruzkinak egitea. Haur bat irakurle bihurtzea ia ezinezkoa da bere etxean ez baldin bada irakurtzen eta etxean liburuak ikustera ohituta ez badago. Horregatik, gurasoek aholkua eskatu behar dute liburudenda eta liburutegietan, euren seme-alabentzat egokien diren liburuak zeintzuk diren jakiteko. Horregatik, hazten direnean, euren kezkekin zerikusia daukaten liburuak gomendatzen jakin behar da, eta gehien gustatzen zaiena aukera dezaten utzi behar zaie.

Nahitaezkoa da irakasleek irakurketa-praktikak egitea euren ikasleekin, haiek landu dezaten uler-

tu eta gozatzeko daukaten gaitasuna. Gogoratzea eta ulertzea ez dira gauza bera.

Beraz, badirudi beharrezkoa dela neurriak hartzea liburuaren prezio finkoari eta egiazko irakurketa-plan bat prestatzeari dagokienez, eta horretarako bultzada eman behar da, aipaturiko egoerak, zeina irakurzaletasun makalekoa baita eta zibilizazioaren funtsezko oinarrietako bat ahuldurik agertzen baitu, hobera egin dezan. Nafarroako Demokraten Elkargunea-CDNk nahitaezko deritzo liburuaren fiskalitatea hobetzeko, liburuaren prezio finkoa defendatzeko eta egile-eskubideei nahiz obrak sortu eta hedatzeko baldintzei babes tinkoa emateko neurri sorta bat prestatzeari.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkeztu dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du irakurketa bultzatzeko plan bat aurkez dezan sei hilabeteko epean. Arreta bereziz hartuko dira aintzat eskola-haurrak eta gurasoak, zeinek kontzientziazio-eginkizuna baitute arlo honetan. Lehentasunezko helburutzat joko dira ikastetxeetan irakurketa aintzat hartzea, etxeko irakurketaren sustapena eta gurasoen orientazio-eginkizuna, azken horiek eragin handia baitute lortu nahi den helburuaren erdiespenean. Hala-ber, liburuaren fiskalitatearekin eta prezio finkoarekin loturiko neurriak jaso beharko dira, irakurketa-liburuak erostea errazagoa izan dadin.

Iruñean, 2001eko ekainaren 1ean

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro hel diezaion Udako Euskal Unibertsitatearekin zuen lankidetzaren hitzarmenari

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro hel diezaion Udako Euskal Unibertsitatearekin zuen lankidetzaren hitzarmenari".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Parlamentuko Askotariko Taldeko eledun Milagros Rubio Salvatierra andreak jarraian azaltzen duen mozioa izapida dadila eskatzen du:

Parlamentuko Osoko Bilkurari aurkezturiko mozioa

Zioen azalpena:

Udako Euskal Unibertsitateak aurten 25 urte beteko ditu Iruñean udako ikastaroak osoki euskaraz ematen.

Hasi zirenetik gaur arte ikastaroek izandako bilakaeraren ondorioz, antolaketa hobetu egin da, eta kalitate zientifikoak ere gora egin du. Euren kulturaren interesaturiko irakasle, ikasle eta, oro har, euskaldun askorentzat erreferentzia izatera iritsi dira ikastaro horiek. Ikastaro horietara gaur egun 1.000 pertsona baino gehiago joaten dira, eta unibertsitatearen mundua euskararekin uztartzea lortu dute.

Kontuan izanik Nafarroako unibertsitateetan horrelako ikastarorik (alegia, unibertsitate-mailakoak eta euskarazkoak) ia ez dagoela, eta UEU-

ren hezkuntza- eta kultura-eskaintza gero eta errotuagoa eta kalitate hobekoa dela, logikoa dirudi Nafarroako erakundeek UEUren eginkizuna babestu eta errazteko behar diren bitartekoak jaritzeak. Bitarteko horiek, behar adinako neurrian izan ez arren, Nafarroako Gobernuak eskaintzen zituen, aipaturiko erakundearekin sinaturiko lankidetzaren hitzarmen baten bidez, eta ikastaroak behar bezala egin ahal izateko nahitaezkoak ziren lokalak jartzeko zituen.

Bada, ustekabea, Nafarroako Gobernuak, bere aldetik, UEUren jarduerak diruz laguntzeko hitzarmena haustea erabaki du, eta are aurreko urteetan erabili izan duen ikastetxe publikoa erabiltzeko baimena ukatu dio. Laz arte, 9,5 milioi pezetako aurrekontu-lerro bat zegoen; hortik finantzatzen ziren UZEI erakundeak lexikografiari buruz eginiko azterlanak, eta, funtsean, Udako Euskal Unibertsitatearen jardunean laguntzeko erabiltzen ziren.

Erabaki desegokia izan delakoan (are gehiago Udako Euskal Unibertsitateak betetako kultura, hezkuntza eta hizkuntza eginkizun garrantzitsua kontuan izanik), honako erabaki proposamen hauek egin ditut, Biltzarreko osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du "Universidad Vasca de Verano/Udako Euskal Unibertsitatea" elkartearekin sinatua zeukan lankidetzaren hitzarmenari euts diezaion, eta hitzarmen horretara bideraturiko aurrekontu-kontusaila urtero Kontsumoko Prezioen Indizearen araberrako gutxieneko neurrian gehitu dezan, 2001erako eta hurrengo urteetarako.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan UEUK Iruñean bere jarduerak behar bezala egin ahal izateko beharrezkoak dituen lokal publikoak izan ditzan, 2001ean eta hurrengo urteetan.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 25ean

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da behi-aziendaren entzefalopatia espongiformeak eragindako arazoak konpontzea helburu duten eskaera ekonomikoei aurre egin diezaien

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da behi-aziendaren entzefalopatia espongiformeak eragindako arazoak konpontzea helburu duten eskaera ekonomikoei aurre egin diezaien".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 192 eta 193. artikuluen babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Nekazaritza Batzordean izapida dadin:

Gure erkidegoko zenbait eskualdetan, abeltzaintza da garrantzizko ekonomi iturri bakarra, eta, jarduera horri esker, herrietako biztanleak haietan urteetan zehar gelditzea lortu da, biztanle horiek hirietara emigratzea saihestu baita. Horrela, bada, ekonomiaren esparrua gaintzen duen zerbait bilakatu da, kultura eta paisaiarekin bat egin baitu. Gainera, osagarri ekonomiko nagusia da milaka familiarentzat, zeinak horren menpean baitaude.

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea-CDNren ustez, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren neurrien osagarri izanen diren neurriak

aplikatu behar dira; horrela, premiazkoa da Nafarroako Foru Komunitateak berehala laguntzak ematea abeltzaintzaren sektoreari, Behi-aziendaren Entzefalopatia Espongiformearen ondoriozko hondamendi ekonomikoa hein batean jasan ahal izan dadin.

Proposaturiko neurriak haragitarako behiaren Merkatuaren Antolamendu Komunean laguntzen artean behi ume-hazleei dagokienez Ministerioak onetsirikoen osagarriak dira.

Beste neurri bat esne-sektorea haragi-azpiproduktuaren esparruan krisiari aurre egiteko topatzen ari den zailtasunen ondoriozkoa da. Nahiz eta aziedaren zahargabetzeak, Europar Batasuneko xedapenak zirela-eta, ezin izan duen aurreikusitako bezala funtzionatu, Nafarroan, apirilera arte, egoerak okerrera egin du, pentsuen kostuaren gorakada eta aratxeen salneurriaren beherakada direla medio.

Horregatik, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du behar diren neurriak eta akordioak lor ditzan sektorearen eskakizun ekonomikoei erantzuteko –871.630.000 pezetako zenbatekodunak–, eta, horrela, Nafarroan sektoreari Behi-aziendaren Entzefalopatia Espongiformeak eragindako arazo ekonomikoak konpontzeko. Eskaturiko neurri horien kostua honela xehekatzen da:

A.- 150.000.000 pezeta, 12 hilabetez beherako abereak hil egin behar izatearen ondoriozko laguntzetarako.

B.- 471.630.000 pezeta, behi ume-hazleentarako laguntzetarako.

C.- 250.000.000 pezeta, hazteko edo hiltzeko saldutako esneko aratxeentarako laguntzetarako.

Iruñean, 2001eko ekainaren 1ean

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ordenagailuak erosteko laguntzak mailakatze-irizpideen arabera egin daitezen

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ordenagailuak erosteko laguntzak mailakatze-irizpideen arabera egin daitezen".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Erregelamenduak xedatutakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Orain dela gutxi jakin dugu prentsaren bidez berehala abiaraziko dela kanpaina bat nafarrek Interneten ibiltzeko modua izan dezaten sustatze-arren.

Kanpaina horren arabera, laguntzak emanen zaizkie ordenagailu bat erosten dutenei edo Interneten ibili ahal izateko ordenagailu berria erosten dutenei, eta familia bakoitzeko ordenagailu bateko muga ezarriko da.

Kanpaina horretan eskandalugarria ez da, jakina, lortu nahi den helburua, baizik eta laguntza horiek era linealean ezartzea, eta ez mailakatze-irizpideei jarraikiz, hots, diru laguntza finkoak emanez eroslearen errenta edozein dela ere. Horrela, kaltetuta ateratzen dira zalantzarik gabe errentarik baxuenak, zeren horiek finantziario handiagoa behar baitute, eta, aldiz, mesede egiten die errenta altuei, ez baitute halako laguntzarik behar.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak:

1. Nafarroako Gobernua premiatzen du Internetera konektatutako ordenagailuak erosteko ezarritako laguntzen sistema mailakatze-irizpideei jarraikiz egin dezan, eta hartara, laguntzaren zenbatekoa errentaren arabera ezar dezan, eta laguntza horiek atzeraeraginezko izaera izan dezaten, 2001eko urtarriletik aitzina.

Iruñean, 2001eko ekainaren 7an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Nazioko Gobernua premiatzen da ez dadin hasi tramitatzen 2002ko otsailaren 1a baino lehen Unibertsitatei buruzko Lege Organikoaren proiektua

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nazioko Gobernua premiatzen da ez dadin hasi tramitatzen 2002ko otsailaren 1a baino lehen Unibertsitatei buruzko Lege Organikoaren proiektua".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Espainiako Gobernuak Unibertsitateei buruzko Lege Organiko berri bat onetsi aurretik gure erkidegoan unibertsitatea eraberritzeari buruzko eztabaida bat egin beharri buruzkoa, Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onets dadin:

Zioen azalpena

Unibertsitatea Eraberritzeko Legea (UEL) 1983an onetsi zen, Espainiako Konstituzioko 27. artikuluko hamargarren idatz-zatian jasotako eskubidea garatzeko. Bertan, unibertsitateen autonomia aitortzen da, legeak hori ezartzen duen moduan. Baina UEL ez zen mugatu Espainiako hezkuntzaren historian lehen aldiz gure unibertsitateen autonomiari edukia ematera; unibertsitatea eraberritzeko lege gisa taxutu zen. Horretarako, departamentu-egitura berria definitu eta bultzatu zuen, unibertsitate-irakasleen araubide berria ezarri zuen, unibertsitate-erkidegoko sektore guztiak—irakasle, ikasle eta administrazio eta zerbitzueta—langileak—erakundearen gobernuan ordezkatuak egotea ziurtatu zuen, eta, Gizarte Kontseiluen bitartez, gizarteak unibertsitatean izanen zuen parte-hartzea antolatu zuen. Unibertsitatea Eraberritzeko Legeak unibertsitate-jarduerarako ezartzen duen esparruan, errendimenduaren kontrola eta erantzukizuna dira autonomiaren ordain zilegia.

Azken urteotan UEL aplikatzeak gure unibertsitateak eraldatu ditu, eta iritzirik hedatuena hau da: lege horrek indarra hartzean abiatutako eraldatze-prozesuak eragin erabakigarria izan duela goi-mailako irakaskuntza modernizatzeko eta horren kalitatea hobetzeko. Lege hori berrikusi beharriaren inguruan adostasun-maila bera dago. Berrikuspen horrek xede du, hain zuzen ere, legea praktikan jartzean antzemandako zenbait disfunzio zuzentzea eta inguru sozial, politiko, kultural eta ekonomiko berriaren ondoriozko aldaketa- eta egokitzapen-beharrizanei erantzutea.

Izan ere, urte hauetan aldaketa politiko eta sozial garrantzitsuak gertatu dira, eta horiek goi-mailako irakaskuntza-sistema berriro eraberritzera behartzen dute: eskumenak autonomia erkidegoei eskualdatzea, gure herriak Europar Batasunarekin guztiz bat egitea, goi-mailako irakaskuntzako europar eremua eraikitzen hasi izana... Horri guztiari gehitu behar zaio sortu diren gizarte-egoera berriei egokitu behar zaizkiela unibertsitateak, eta, ondorioz, erronka berriei egin behar dietela aurre:

lan egiteko modu berriak, lanbide-betebeharren aldaketa, eguneroko bizitzan teknologiak sartu izana, mugikortasun geografikoa, komunikazio-eta informazio-egitura berriak eta abar.

Unibertsitatea berriz eraberritzeari ekiteko, ahalik adostasun handiena lortzea komeni da. Adostasuna beti komeni bada ere, arlo honetan garrantzi berezia dauka, goi-mailako irakaskuntzako gure herriaren etorkizunean daukan garrantzi estrategikoa dela-eta. UELren ia hemezortzi urteko indarraldia aise luza daiteke hilabete batzuk gehiago, unibertsitate-araubide berriaren sendotasuna bermatuko duen eztabaida bat errazteko. Lege iraunkor eta egiazki eraldatzailea onetsi nahi bada, eztabaida serio eta zorrotza egin behar da; hain zuzen ere, Errektoreen Konferentziak, Autonomia erkidegoek eta gizarte-eragile ugari eskatu duten bezala.

Unibertsitate-erkidegoaren ahotsa eta iritzia entzun egin behar da, lege hau onestearen ondorioz unibertsitateetako Estatutuak aldatu beharko direlako eta irakasle, ikasle eta administrazio eta zerbitzueta langileei eraginen zaielako. Autonomia erkidegoen iritzia ere guztiz aintzat hartu beharrek da, hain zuzen ere, haiek, euren eskumenen esparruan osoki jardunez, euren lege berekietan aldaketak egin beharko baitituzte. Gizarte-eragileek legearen behin betiko testurako garrantzizkoak diren elementuak ekarri behar dituzte. Azkenik, goi-mailako irakaskuntzaren europar eremua eraikitzeari buruz gobernuak eta errektoreek eginiko gogoetak, zeinak Sorbonne, Bologna, Salamanca edo, duela oso gutxi, Pragoako Adierazpenetan gauzatu baitira, gure unibertsitateen etorkizunerako saihestu ezinezko erreferentziatzat hartu beharko dira.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak honako ebazpen hau aurkeztu du, Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsi dezan:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nazioko Gobernuak premiatzen du Unibertsitateei buruzko Lege Organikoaren Proiektuaren izapidatzea 2002ko otsailaren 1a baino lehenago ez hasteko, Nafarroako Foru Komunitatean aurretiaz eztabaida bat egin ahal izan dadin unibertsitate-ikasketei buruzko gaur egungo legediari egin behar dakizkikeen aldaketen gainean.

2.- Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du behar den parlamentu-batzordean unibertsitatea eraberritzeari buruzko eztabaida egiteko, unibertsitate-erkidego guztiaren (irakasle, ikasle eta administrazio eta zerbitzueta langileen), gobernu-organoen, unibertsitateetako ordezkarien

(klastro, gobernu batzordeen...) eta zeresana daukaten gizarte-eragileen (enpresaburu, sindikatuen...) parte-hartzea ahalbidetuz.

Eztabaida hori urte honen bukaerara arte eginen da, unibertsitate-erkidegoko sektore guztien parte-hartzerik handiena errazteko, unibertsitateko egutegiaren ezaugarriak kontuan izanik.

Eztabaida horretako ondorioak Gorte Nagusiei eta Nazioko Gobernuari igorriko zaizkie.

3.- Halaber, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du erabaki hau Nazioko Gobernuari igor diezaion eta gure Komunitatean eztabaida hori egin bitartean Unibertsitatei buruzko Lege Proiektua onets ez dezan eska diezaion.

Iruñean, 2001eko ekainaren 8an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Adierazpen politikoa, Konstituzioko Lehen Xedapen Gehigarria, zeina foru lurraldeen eskubide historikoak babestu eta errespetatzeari buruzkoa baita, indarrean dagoela berrestekoa

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarra, 2001eko maiatzaren 28an egindako bileran, hurrengo adierazpen politikoa onetsi zuen:

1.- Nafarroako Parlamentuak berresten du Espainiako 1978ko Konstituzioa eta horren Lehen Xedapen Gehigarria, zeina foru lurraldeen eskubide historikoak babestu eta errespetatzeari buruzkoa baita, indarrean daudela, eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko harremanak ezartzen dituen araubidea baliozkoa dela; hain zuzen ere, hauxe: Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta Hitzarmen Ekonomikoa.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du Nafarroari Espainiako Konstituzioak, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta Hitzarmen Ekonomikoa ezagutzen dizkioten autogobernua eta eskubide historikoak behar den lekuetan defenda ditzan, autogobernuari eginiko erasoen aurka, edonork eginikoak direla ere.

3.- Nafarroako Parlamentuak Estatuako Gobernuari premiatzen du Senatua birmoldatzeari ekin diezaion, egiak lurralde-ordezkaritzako biltzarra eta autonomia erkidegoekin zerikusia daukaten gai guztiak eztabaidatzeko leku egokia izan dadila ahalbidetzeko.

4.- Nafarroako Parlamentuak Estatuako Gobernuari premiatzen du autonomia erkidegoek eta Nafarroako Foru Komunitateak Europar Batasuneko organo erabakitzaileetan presentzia aktiboa izateko beharrezkoak diren neurriak susta ditzan, Espainiako Estatuaren osagai diren berezitasunek agerri bat izateko.

5.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du Estatuarekin Nafarroaren eskumen-multzoa osatzeko elkarriketetan has dadin, eta eskumen berriak eskualdatzeko negoziaketek ekin diezaien.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Lehendakaria, José Luis Castejón Garrués

Adierazpen politikoa, El Salvadorko Santa Tecla udalerriko San Jacinto muinoa babesgunetzat har dadila eskatzekoa

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarra, 2001eko maiatzaren 28an egindako bileran, hurrengo adierazpen politikoa onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak El Salvadorko Gobernuari eta Legebiltzarrari eskatzen die babesgune deklaratu dezaten Santa Tecla udalerriko San Jacinto muinoa, eskualde hori berreraikitzeko lehen urrats gisa. Bertan, prebentzioak zeregin funtsezkoa dauka.

2.- Nafarroako Parlamentuak emakumeen egoera babesten du, eta, horregatik, soluzio eta proposamen guztiek generoari dagokionez ekitatezko ikuspegia izan dezaten premiatzen du, kontuan izanik ezen naturako hondamendiek nola sektoreetan, zona geografikoetan eta biztanleengan hein ezberdinean eragiten baitute, hala gizonei eta emakumei ere ondorio ezberdinak ekaritzen dizkietela.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen du hondamendiak jasatearen ondorioz larrialdi-egoera berezian dauden eskualdeetarako proiektuei diruz laguntzeko lehentasuna eman diezaien, Nafarroako Parlamentuak onetsitako Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko Foru Legea garatzean.

4.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eta Espainiako Gobernuari eskatzen ditu aurrekoen antzeko ebazpenak onets ditzaten.

5.- Adierazpen politiko hau El Salvadorko Gobernuari eta Legebiltzarrari, “Mujeres por la Dignidad y la Vida –Las Dignas—” elkarteari, gobernuz kanpoko erakundeen koordinakundeari, Espainiako Gobernuari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta hedabideei igortzea.”

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Lehendakaria, José Luis Castejón Garrués

Adierazpen politikoa, Palestina eta Israelen arteko bake-akordio baten aldekoa

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarra, 2001eko ekainaren 11n egindako bileran, hurrengo adierazpen politikoa onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du Palestina eta Israelen artean bake-akordio bat lortzearen alde dagoela. Akordio horrek bermatu beharko du gatazkak soluzio bidezkoa eta iraunkorra izatea, eta, ildo horretatik, honako hauek xedatu beharko ditu:

- Ekialdeko Jerusalem, Gaza eta Zisjordanian Israelen okupazioaldia amaitzea.

- Israelek Palestinako lurak legez kontra konfiskatuz Gaza eta Zisjordanian eraikitako asentamenduak deuseztezea.

- Palestinako herriaren independentzia eta askatasuna bermatzea, hiriburutzat Ekialdeko Jerusalem izan den estatu bat sortuz.

- Errefuxiatu eta lekualdatu guztiek itzultzeko daukaten eskubidea bete ahal izan dadila bermatzea.

2.- Adierazpen politiko hau Palestinako Aginte Nazionalak Espainiako Estatuan daukan ordezkari eta Israelgo Estatuak Espainiako Estatuan daukan Enbaxadari bidaltzea.”

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria, José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Nafarroako Foru Komunitateko ikasleen gaineko datuei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Nafarroako Foru Komunitateko ikasleen gaineko datuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamen-

duaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dadin:

Nafarroako Foru Komunitateko ikasleei buruzko datuak sakonki ezagutzeko asmoz, hauxe jakin nahiko luke:

Aipaturiko ikasleei buruzko datuak, Foru Komunitateko ikastetxe guztiak zehaztuz, bai hitzartuak bai publikoak, derrigorrezko irakaskuntza guztian nahiz derrigorrezko irakaskuntzaren ondokoan (batxilergoa eta lanbide-heziketa).

Datu horiek hezkuntza-mailaka eta hizkuntza-ereduka antolaturik behar dute egon, eta zehaztuta eskaini behar dira.

Iruñean, 2001eko ekainaren 1ean

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Adimen gaixoentzako programek izan duten aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak adimen gaixoentzako programek izan duten aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeari atxikiriko osasun gaietako eledun Isabel Arboniés Bermejo andreak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dadin:

Adimen-gaixoei erakunde publikoek eskaintzen dieten laguntzari dagokionez, gaur egungo egoera erabateko utzikierakoa da, haien familien eta elkarten arabera; izan ere, Nafarroako adimen-gaixoen %8ri baino ez zaie laguntza ematen. 43 milioiko aurrekontua dago Nafarroan eskueran dauden laguntza juridikorako, norbere laguntzarako, gizarte-laguntzarako, aisialdirako zerbitzu

espezializaturako eta etxeko laguntzarako dauden programa bakarrak egin ahal izateko.

Ingresaturiko gaixo kroniko baten eta bere familiak zaintzen duen beste baten artean dagoen alde ekonomikoa izugarrikoa da. Adimen-gaixo instituzionalizatu batek Nafarroako Gobernuari sortzen dion urteko kostua 7,5 milioi pezetakoa izan zen 1999an, Adimen Osasuneko Oroit-idazkiaren arabera. Zer esanik ez, ingresaturik dauden 214 pertsonen ordez Iruñeko Psikiatrikoak behinola izan zituen 1.200 pertsonak egonen balira, kostua urteko 9.000 milioi pezeta baino handiagoa izanen litzateke, eta gaur egungo bost mila gaixo larriak instituzionalizaturik baleude, kostua urteko 37.500 milioi pezeta baino gehiagokoa litzateke.

Nafarroan adimen-gaixotasuna daukaten 17.000tik gora pertsonentzat bideraturiko gastu publikoa ez da, inongo ikuspegitatik ere, Nafarroaren ahalmena duen erkidego bati dagokiona. Etxeko laguntza-zerbitzua soilik 101 pertsonari ematen zaio; aisialdi eta sustapen kulturalakoa 154ri, eta lanera bideratzekoa 118 pertsonari. Benetan, horrelako kopuruekin eta 100 milioi pezetara iristen ez den inbertsioa izanik, uler daiteke birmoldaketa psikiatrikoaren ondorioz nagusia osasun-gastu publikoaren izugarriko murrizketa izana, eta urtero lortzen den milaka milioi pezetako aurrezki horren zati bat ere ez da inbertitu erkidegoan eta familian oinarrituriko zerbitzu eta bitartekoak adimen-gaixoentzat abiarazteko, ezta kasu larri eta kronikoek osatzen duten %40 horrentzat ere.

Hori guztia dela-eta, hauxe jakin nahi da:

1) Nafarroan adimen-gaixotasunak pairatzen dituzten pertsonentzako etxeko laguntzako berriazko programetan 1999, 2000 eta 2001eko ekitaldietan Nafarroako Gobernuak betetako aurrekontua, eta ekitaldi bakoitzean laguntza jaso duten pertsonen kopuru osoa.

2) Nafarroan adimen-gaixotasunak pairatzen dituzten pertsonentzako aisialdi eta sustapen kul-

turaleko berriazko programetan 1999, 2000 eta 2001eko ekitaldietan Nafarroako Gobernuak betetako aurrekontua, eta ekitaldi bakoitzean laguntza jaso duten pertsonen kopuru osoa.

3) Nafarroan adimen-gaixotasunak pairatzen dituzten pertsonentzako lanera bideratzeko baliabideetan eta enpresa normalizatueta laneratzeko programetan 1999, 2000 eta 2001eko ekitaldietan Nafarroako Gobernuak betetako aurrekontua, eta ekitaldi nahiz lan-mota bakoitzean laguntza jaso duten pertsonen kopuru osoa.

4) Adimen-gaixotasunak pairatzen dituzten pertsonentzako Nafarroan kokaturiko egoitzetan, berekietan nahiz hitzartuetan, 1999, 2000 eta 2001eko ekitaldietan Nafarroako Gobernuak betetako aurrekontua eta ekitaldi bakoitzean laguntza jaso duten pertsonen kopuru osoa.

5) Adimen-gaixotasunak pairatzen dituzten pertsonentzako Nafarroatik kanpo kokaturiko egoitzetan 1999, 2000 eta 2001eko ekitaldietan Nafarroako Gobernuak betetako aurrekontua eta ekitaldi bakoitzean laguntza jaso duten pertsonen kopuru osoa.

6) Adimen-gaixotasunak pairatzen dituzten pertsonentzako birgaitze psikosozialeko programetan 1999, 2000 eta 2001eko ekitaldietan Nafarroako Gobernuak betetako aurrekontua eta ekitaldi bakoitzean laguntza jaso duten pertsonen kopuru osoa.

7) Nafarroan adimen-gaixotasunak pairatzen dituzten pertsonentzako familiaren atsedenerako programetan 1999, 2000 eta 2001eko ekitaldietan Nafarroako Gobernuak betetako aurrekontua. Eskueran dauden postuen kopurua, ekitaldi bakoitzean laguntza jaso duten pertsonen kopurua eta erabiltzaileen batez besteko egonaldia.

Iruñean, 2001eko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Herrilanetan jartzen diren eskulturek izaten duten adjudikazio-sistemari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak herrilanetan jartzen diren eskulturek izaten duten adjudikazio-sistemari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dadin:

Nafarroako Foru Komunitatean eginiko zenbait herrilanetan, eskultura batzuk jarri dituzte, 1999tik 2001era bitartean, eta, horiei buruz, honako informazio hau eskatzen da:

1.- Zer departamentuk izan du lan horiek esleitzearen ardura?

2.- Zer esleipen-sistema aukeratu da? Esleipen bakoitzeko baldintza-orriak eskatzen dira, baita horietako bakoitzaren zioak azaltzea ere, eta, lehiakide bat baino gehiago izan denean, lehiakide bakoitza zehatz dadila.

3.- Zein izan da lan bakoitzaren kostu banakatuak?

4.- Zer pertsona izan dira esleipen-hartzaile? Zergatik?

Iruñean, 2001eko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Zaharretxeen proiektuen finantziarioari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI CAROLINA CASTILLEJO HERNÁNDEZ ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak zaharretxeen proiektuen finantziarioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikiriko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariari, idatziz erantzun ditzan:

1.- Zaharretxetarako zenbat proiektu finantzatu zituen Nafarroako Gobernuak 2000n?

2.- Zein herriri dagozkio proiektu horiek?

3.- Zenbat diru ordaindu zuen Foru Komunitateak? Zeintzuk dira udalei zegozkien zenbatekoak?

4.- Nafarroako Gobernuak 2001ean zenbat zaharretxe-proiektu finantzatzeko asmoa dauka?

5.- Zein herriri dagozkio proiektu horiek?

6.- Zenbat diru ordainduko du Foru Komunitateak? Zeintzuk dira udalei dagozkien zenbatekoak?

7. Zer egoitza-proiektu ukatu dizkie Nafarroako Gobernuak toki entitateei legegintzaldia hasi zenetik? Kasu bakoitzean, zein izan da ukoaren arrazoia?

Iruñean, 2001eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Carolina Castillejo Hernández

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak produktibitate-osagarria dela-eta ordaindutakoei buruzko galdera

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak produktibitate-osagarria dela-eta ordaindutakoei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Bilzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean,

hurrengo galderak egin ditu, Osasun Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

Zer ordainketa egin ditu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak produktibitate-osagarria dela-eta 2000n eta 2001eko lehen hiruhilekoan?

Hauxe jakin nahi da:

– Ordainketa datak

– Zenbatekoa

– Lanpostua, zein unitate organikori dagoen atxikita eta lantokia

– Zerk eragin duen ordainketa.

Iruñean, 2001eko ekainaren 5ean

Eleduna: Joxe Pernando Barrena Arza

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak aparteko orduak direla-eta ordaindutakoei buruzko galdera

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak aparteko orduak direla-eta ordaindutakoei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Bilzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean,

hurrengo galderak egin ditu, Osasun Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

Zer ordainketa egin ditu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak aparteko orduak direla-eta 2000n eta 2001eko lehen hiruhilekoan?

Hauxe jakin nahi da:

– Ordainketa datak

– Zenbatekoa

– Lanpostua, zein unitate organikori dagoen atxikita eta lantokia

– Zerk eragin duen ordainketa.

Iruñean, 2001eko ekainaren 5ean

Eleduna: Joxe Pernando Barrena Arza

Lizarrako alkohol-fabrikari ibilgailuak sartzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Lizarrako alkohol-fabrikari ibilgailuak sartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babesean, honako galde-

ra hau aurkeztu dio Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

Lizarrako alkohol-fabrikatik herri horretako saihebidera bitartean dagoen ibilgailu-trafikoak arrisku larria sortzen die herriko biztanleei, herriko alde zaharra zeharkatzen baitu. Inori ez zaio oharkabean gelditu herriko zona horretatik egunero 80 kamioi baino gehiago behar baino gehiagotan igarotzeak arriskuan jartzen dituela Lizarrako biztanleak, hori gertatu beharko ez litzatekeen arren.

1.- Aipaturiko enpresatik Lizarrako saihebideraino zuzeneko irtenbiderik egiteko asmorik ba al dauka zure departamentuak?

2.- Baiezkoan, zein ekitalditan?

3.- Ezezkoan, ez al du beharrezkotzat jotzen hori lehentasunez egitea?

Iruñean, 2001eko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

Irrati emisoren emakiden adjudikazio-hartzaile izan ziren enpresei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak irradi emisoren emakiden adjudikazio-hartzaile izan ziren enpresei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak, 1998ko uztailaren 15eko 2343/1998 Foru Aginduaren bidez, Iruñean frekuentzia modulatuak uhin metrikoko bi irradi emisoretarako kontzesioa esleitzea erabaki zuen. Esleipen-hartzaileak Universidad de Navarra (98.3) eta Medios de Comunicación 21 (105.4) enpresak izan dira.

Inori ez zaizkio oharkabeen pasa departamentu horrek jarraituriko prozedurari buruz bere garaian eginiko salaketak –horien ondorioz, Ikerketa Batzorde bat eratu zen Parlamentuan–, ez eta frekuentziak esleitzeko aurretik izandako prozesuetan gertaturikoa ere (eskualdaketak ere izan ziren).

1.- Zure departamentuak egiaztatua al dauka 1998an frekuentzia modulatuak uhin metrikoko bi irradi emisoretarako kontzesio-lehiaketan Iruñean esleipen-hartzaile suertatu ziren enpresen gaur egungo akziodun-multzoak eta kontzesioaren unekoak osaera-baldintza berak betetzen dituztela?

2.- Aldaketarik izan baldin bada, zein?

3.- Aurreko kasuan, zer prozesuri jarraitu zaio Foru Komunitateko Administrazioan egindako izapidatzean?

4.- Zer bitarteko erabiltzen ditu zure departamentuak enpresa horietako sozietate-kapitalean eta akziodunen multzoaren osieran izandako balizko aldaketan berri izateko?

Iruñean, 2001eko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

Suhiltzaile eta bidezainen etxebizitza hutsei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak suhiltzaile eta bidezainen etxebizitza hutsei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Parlamentuko Askotariko Taldeko parlamentari Milagros Rubio andreak, Biltzarreko Erregelamen-

duko 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hauek erantzun dakizkion eskatzen du:

1.- Suhiltzaile eta bidezainen parke deritzen horietako etxebizitza hutsak Nafarroako zein herri eta hiritan daude? Zenbat etxebizitza dago leku bakoitzean?

2.- Gobernuak etxebizitza horiek guztiak edo horietako batzuk ezertan erabil daitezzen erabaki du? Zein erabilera pentsatu du, eta zein epetan gauzatzeko?

Iruñean, 2001eko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Suhiltzaile eta bidezainen etxebizitza hutsak etorkinek erabiltzeko aukerari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak suhiltzaile eta bidezainen etxebizitza hutsak etorkinek erabiltzeko aukerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Parlamentuko Askotariko Taldeko parlamentari Milagros Rubio andreak, Biltzarreko Erregelamen-

duko 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hauek erantzun dakizkion eskatzen du:

1.- Gobernuak Tuterako Bidezain eta Suhiltzaileen Parkeko etxebizitza hutsak ezertan erabil daitezzen pentsatu du? Zein epetan, eta zertarako?

2.- Etorkin askok Tuteran topatzen dituzten etxebizitza-arazo larriak hein batean konpondu ahal izateko, etxebizitza horiek Tuterako Udalari edo etorkinekin lan egiten duten kolektiboek lagatzeko moduko egoeran al dago Gobernuak?

Iruñean, 2001eko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Europar Batasunean gehien erabiltzen diren hizkuntzak ikergai hartuta, Nafarroako Foru Komunitatean egitekoa den inkesta soziolinguistikoa-ri buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Europar Batasunean gehien erabiltzen diren hizkuntzak ikergai hartuta, Nafarroako Foru Komunitatean egitekoa den inkesta soziolinguistikoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña

Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari, idatziz erantzun dezan:

Zer aurrekontu-kontusail erabiliko du zuzendaritza Nagusi horrek "Europar Batasunean gehien erabiltzen diren hizkuntzak (ingelesa, frantsesa eta alemaniarra) Nafarroan" gaiari buruzko inkesta soziolinguistiko bat egiteko lanak kontratatze-ko? Zer zenbateko du aipatu kontusailak?

Iruñean, 2001eko ekainaren 7an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko kontusailen betetzeari buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko kontusailen betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe jaunak, Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuari jarraituz, babes ofizialeko etxebizitzak sustatzera eta lurzoru publikoaren

parke bat eratzea bideraturiko aurrekontu-kontusailen betetzeari eta, bereziki, etxebizitzaren arloko gastuetarako Sarrigurengo dirusarrera handigoetatik datorren 2.000 milioiko kontusailaren betetzeari buruzko galdera hau Parlamentuko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko izapida dadila eskatzen du.

Galderaren zioak

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak interes handia agertu du legegintzaldi guztian zehar Nafarroako aurrekontu orokorrak etxebizitzari dagozkion gaietan handitzeko, honako bi helburu hauek errazteko: xede horretara bideraturiko lurzoru publikoaren multzo handi bat eratzea eta sustaturiko babes ofizialeko etxebizitzak kopurua gehitzea. 2001. urtearen ia erdia igaro delarik, urte honetarako aurrekontuaren betetze-maila eta aurrekontu hori zertarako erabili den jakin nahi da.

Galderaren testua
Aurrekoa azaldu ondoren, honako hau galde-
tzen zaio Nafarroako Gobernuari:
2001erako etxebizitza-aurrekontutik zer bete-

tze-maila hitzartu da jadanik? Zertarako erabili da
hori?

Iruñean, 2001eko ekainaren 8an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

G Saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko errepide handien etorkizuna –bereziki A-15arena– aztertzeke Batzorde Bereziak emandako txostena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzorra entzun ondoren ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Komunitateko errepide handien etorkizuna –bereziki A-15arena– aztertzeke Batzorde Bereziak, 2001eko ekainaren 4an egin-dako bileran, emandako txostena ikusita, ERABAKI DA:

1. Txosten horren jakitun dagoela adieraztea.

2. Aipatu txostena Biltzarreko Osoko Bilkurara igortzea, berretsia izan dadin.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Foru Komunitateko errepide handien etorkizuna –bereziki A-15arena– aztertzeke Batzorde Bereziak emandako txostena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen ekimenez 1999ko azaroaren 2an hartu zuen erabakiaren bitartez, Nafarroako Foru Komunitateko errepide handien etorkizuna –bereziki A-15arena–aztertzeke Batzorde Berezia eratu zen, errepide handiek Nafarroan izanen duten etorkizunari buruzko ondorio edo gomendio batzuk zehazteko xedez.

Batzordea 1999ko abenduaren 30ean eratu zen, eta bilkurak egin ditu 1999, 2000 eta 2001ean. Horietan, agintari, aditu eta agertu beharrekotzat jo ziren pertsona guztiek parte hartu dute, batzorde bereziaren aztergaiei buruzko euren proposamen eta ikuspegiak azaltzeko. Halaber, eskatu ziren txosten eta dokumentuak ekarri ziren.

2001eko maiatzaren 31n Parlamentuko taldeek aurkezturiko proposamenak eztabaidatu eta, kasu batzuetan, onetsi ziren; horrela, batzordeki-deek erabakitako lan-egitaraua bete zen. Onetsitako proposamen horiek, "Batzorde Bereziaren Ondorio" gisa, osatzen dute Mahaiari eta Eledunen Batzarrari aztertzeke bidaltzen zaien txostena. Hori guztia, Batzorde bereziaren eraketa, antolaketa eta funtzionamendua zehazten dituzten arauetako zazpigarrenak ezarritakoari jarraituz.

ONDORIOAK

1.- Errepide Plana

Nafarroako Gobernua premiatzea 2001ean Nafarroako Parlamentuari 2002-2005-2009 urteetarako Nafarroako Errepideei buruzko Foru Plan berri bat aurkez diezaion, Nafarroako Parlatuentuak onetsi dezan. Plan horrek, besteak beste, Nafarroako Foru Komunitateko errepide handien etorkizuna aztertzeke Batzorde Bereziak onetsitako erabaki proposamen guztiak jaso beharko ditu, eta arreta bereziz aztertu beharko ditu Nafarroako eskualde- eta toki-sarea, elementu garrantzitsua izan dadin Nafarroako lurralde-egituraketan eta bertako oreka ekonomiko eta sozialean.

2.- Iruña-Lizarra-Logroño autobia

Nafarroako Gobernua premiatzea Iruña-Lizarra-Logroño autobia obrak berehala hasi ahal izateko administrazio-izapideei ekin diezaien 2001ean, autobia hori gehienez ere 7 urteko epean errealitate bihurtzeko, aurrekontuz kanpoko finantzaketaren bidez. Horrela finantzatzeak errepide handietan egin beharreko beste ekintza batzuk aurrekontuen bidez finantzatu ahal izateko zenbait baliabide ekonomiko gordetzea ahalbidetu beharko du.

3.- A-15 autobia.

1.- Nafarroako Gobernua premiatzea bide-segurtasunaren esparruan N-121aren ezaugarriak

hobetzeko xedez zenbait lan egin ditzan; zehazki, honako hauek:

- "Orizko bihurguneak" deritzenak eraldatzea.
- Arrizabalagako zeharbidea eraldatzea, Tiebas-Muru Artederretako Udalarekin lankidetzan.
- Untzueko bidegurutzea eraldatzea.
- Barasoain-Garinoaingo bihurguneak eraldatzea.
- A-15aren Tafallako lotuneak, iparraldekoa eta hegoaldekoa, eraldatzea.
- Los Abetos-eko bidegurutzea eraldatzea.

2.- Halaber, Nafarroako Gobernuak premiatzea lotune gehiago eraiki ditzan A-15ean, inguruetako herrietara errazago iritsi ahal izateko, baina bidesariaren araubidea aldatu gabe.

4.- N-232

Nafarroako Gobernuak premiatzea N-232a osoki bikoizteko beharrezkoak diren izapideei ekin diezaien.

2001 eta 2002an proiektua egin eta onetsi eta obrak lizitzatzeko beharrezkoak diren izapideak eginen dira. Obrak 2003an hasi eta 2007an bukatuko dira.

5.- A-68-Tuterako ekialdeko saihebidia

1.- Tuterako ekialdeko saihebidia

Nafarroako Gobernuak premiatzea Tuterako ekialdeko saihebidia egiteko administrazio-izapideei berehalakoan ekin diezaien, obrak 2003an hasi eta 2005ean bukatu ahal izateko.

2.- A-68 autobideko lotune berriak

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Vasco-Aragonesa, S.A. (AVASA) kontzesio-hartzailearekin A-68 autobidearen Nafarroako zatian –zehazki, Lodosan– lotune berri bat eraikitzeak akordio batera iristeko behar diren urratsak eman ditzan Sustapen Ministerioan.

6.- Pirinio azpiko autobia.

Nafarroako Gobernuak premiatzea N-240ko Noain-Idotzin zatiko obrak 2003an hasi ahal izateko behar diren administrazio-izapideei ekin diezaien 2001ean. Aipaturiko errepide-zatia Iruña-Huesca Pirinio azpiko autobia da, gutxi gorabehera 9.500 milioiko kostua du, eta 2007an bukatuko da.

7.- Medinaceli-Tutera errepide handia.

Nafarroako Gobernuak premiatzea Sustapen Ministerioan behar diren ekintzak egin ditzan Medinaceli-Tutera errepide handia berehala egiteko konpromisoa lortzeko.

8.- N-121 A. Iruña-Behobia.

Nafarroako Foru Komunitatearen eta Europaren arteko lotura hobetzeari dagokion lehentasun gisa, Iruña-Behobia N-121 A errepide guztia hobetzea, eta Nafarroako Gobernuak presaz premiatzea Bera-Endarlatsa zatia egiteko eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Endarlatsa-Behobia zatirako akordio batera iristeko.

9.- N-121 B.

N-121 B errepidean, Mugairetik Frantziako mugaraino, behar diren saihebidia egin eta Otsondoko mendatea hobetzea.

10.- Ezkabako tunela.

Nafarroako Gobernuak premiatzea Ezkabako Tunelari dagokionez behar diren administrazio-izapideei ekin diezaien 2001ean, horiek 2002an hasi eta 2005ean bukatu egon ahal izateko. Horren kostua 4.000 milioi ingurukoa da.

11.- Pirinioaz gairiko autobia.

Nafarroako Gobernuak premiatzea Nafarroa-Frantzia mugaz gairiko errepide handi bat eraikitzeak behar diren aurretiazko azterlan teknikoak egiten jarrai dadin.

Nafarroako Gobernuak premiatzea Frantziako agintariekin hitzarmen bat egin dezan aipaturiko Nafarroa-Frantzia errepide handiaren aurreproiektua eta errepide horren ingurumen-eraginari buruzko azterlana bi aldeek elkarrekin prestatzeko.

12.- N-135.

Nafarroako Gobernuak premiatzea toki-sarean hobekuntzak egin ditzan, N-135 igarotzen den herrietan (Erroibar) eta N-140an, Auritz eta Izaba artean.

13.- N-132.

Nafarroako Gobernuak premiatzea 2002tik 2004ra bitartean Lergako gainetik Eslabarainoko errepide-zatia eraiki dezan, eta jarraian ardatza Zareko saihebidian buka dezan.

14.- Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Ondorioen Txostena berresteko proposamena eta behar diren ekimenak izapidatzea.

Batzorde Bereziak Eledunen Batzarra premiatzen du Batzordearen txostena, zeinak gehien-

goz onetsiriko ondorioak biltzen baititu, Parlamentuko Osoko Bilkuran aurkez dadin, horrek berresteko.

Halaber, onetsiriko erabaki proposameneren edukia eraginkorra izan dadin behar diren parlamentu- eta legegintza-ekimenak izapidatuko dira.

Deialdia, administrarien kidegoko funtzionarioen arteko merezimendu-lehiaketaren bidez Nafarroako Parlamentuko Protokoloko buruaren lanpostua betetzeko

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda

Administrarien kidegoko funtzionarioen arteko merezimendu-lehiaketaren bidez Nafarroako Parlamentuko Protokoloko buruaren lanpostua betetzeko deialdira eskabideak aurkezteko epea agorturik, deialdiko 4. oinarriak ezarritakoaren arabera (2001eko maiatzaren 28ko 57. NPAO argitaratua), ERABAKITZEN DA:

1. Ondoko onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onestea.

Onartuak:

Hualde Arbizu, Natividad

Baztertutak:

Inor ez.

2. Txostena aurkezteko azken eguna 2001eko irailaren 14, 14:00etan, izango da.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko ekainaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefona

P. K. Hiria

Probintzia

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--